

La Fundación Sustrai Erakuntza presenta alegaciones ante la avalancha de polígonos solares y eólicos

SUSTRAI ERAKUNTZA :: 23/04/2021

Durante las próximas semanas seguiremos presentando alegaciones a este aluvión de proyectos.

Sustrai Erakuntza Fundazioak alegazioak aurkeztu ditu eguzki- eta eoliko-poligonoen uholdearen aurrean, geldiarazi eta plangintza demokratikoa eskatzeko

Sustrai Erakuntza Fundazioa alegazioak aurkeztea bultzatzen ari da azken asteotan Nafarroan argitara ateratzen ari diren eguzki- eta eoliko-poligono andanaren aurka. Orain arte, eta hilabete pasatzoko epean, **Fundazioak 19 alegazio aurkeztu dizkie** dagoeneko beste hainbeste proiekturi. Era berean, beste erakunde eta pertsona partikular batzuk ere alegazio horiek edo antzekoak erregistratzen ari dira; izan ere, testuak eta horiek egiteko jarraibideak **jendearen eskura jarri ditugu** gure webgunean.

Eta **datozen asteetan alegazioak aurkezten jarraituko dugu**. Oraingoz, **guztira 36 dira** inpaktu eta tamaina handiko proiektuak. Hori da Nafarroako Gobernuak eta Estatuko Gobernuak azken egunotan Nafarroan jendaurrean jarri dituzten proiektuen kopurua. Baina kopuru osoa askoz handiagoa izango da asteak eta hilabeteak pasatu ahala. Proiektuei buruzko informazio guztia eta **alegazioak Sustrai Erakuntzaren webgunean eskura daitezke** (www.sustraiarakuntza.org).

Sustrai Erakuntzak hainbat alegazio egin behar izan ditu, eguzki- eta eoliko-poligono horiek **arrazionaltasunik gabe** planteatzen ari direlako. Alegazioetan bertan zehatzago azaltzen dugunez, **proiektu horien garapenak ez du inolako plangintza demokratikorik**. Abian diren proiektuekin nabarmen gaintitzen ari da Nafarroako Energia Planean proposatutakoa. Une honetan, ez dago erakunde publikorik berriztagarrien garapena antolatzen edo zuzentzen duenik, ezta espekulazio-burbuila berri hori gelditzeko asmorik duenik ere. Eta, jakina, ez zaie inoiz kontsultatu herritarrei Nafarroan ditugun beharrei, inpaktuei eta energia-ereduari buruz. Hori guztia herritarren bizkar egiten ari da, modu guztiz antidemokratikoan.

Hori dela eta, **alegazioen bidez martxan dauden proiektu guztiak geldiaraztea eskatzen diogu Gobernuari**. Beharrezkoa ikusten dugulako Nafarroan behar dugun eredu energetikoaren inguruko hausnarketa eta plangintza prozesu egoki bat irekitzea. Eta bitartean, ez dira abian jarri behar tamaina honetako proiektu eta poligono gehiago, ingurumenean, nekazaritzan eta gizartean dituzten eragin izugarriak direla medio.

Aurkeztutako proiektu eta poligono gehienek **eragin larriak dituzte Nafarroako ingurumenean**. Horiek ezartzeko, lur-mugimendu handiak egin behar dira, eta pista handiak ireki lursail naturaletan, kasu askotan jende gutxi ibiltzen den eta natura-balio handiak dituzten eremuetan. Gainera, eremu babestuak eragiteraino iristen dira. Guztiaren ondorioz, landaredia suntsitu, animalia-espezieen habitatak zatikatu eta oztopo artifizialak

sortu egiten dira, animalien mugimenduak eta pasoak zailduz.

Baina, batez ere, Nafarroako poligono eolikoek sortzen duten **hegaztien hilkortasuna azpimarratu behar dugu**. Nafarroako Gobernuak zenbatu eta emandako parke eolikoetako **hegazti-faunaren heriotzen datuak aztertu ditugu, aurrerago zabaldu** eta jakinaraziko ditugunak. Oraingoz egiaztatu ahal izan dugu hegazti-fauna nahiz espezie babestuen sarraskia kritikoa dela.

Duela gutxi jarritako instalazioek, hala nola **Cavarkoak**, Yugo mendilerroan eta Bardeako Parke Naturalaren gisako naturguneen mugakideek, putreak, miruak eta beste espezie babestu asko hiltzen dituzte, hain eskasa diren basoilo txikiak eta handiak barne, erakunde ekologistek behin eta berriz salatu duten bezala. Nafarroako Gobernuaren datuen arabera, 2020ko uztailetik, parkea martxan jarri zenetik, 2021eko martxora arte, 8 hilabete eskasetan, **80 sai hil zenbatu dira, beste hegazti eta saguzar espezie batzuekin batera, guztira 124 ale**. Eta horiek dira atzemandakoak...

Orain proiektu berri batzuk aurkeztu dira, hala nola, "**Tenplarioak**", natur-, paisai- eta ondasun balio handiak biltzen dituen eremu bati eragiten diona, eragiten diona, edo "**Corralesenak**", Uxue eta Pitillasen. Azken horiek Pitillasko aintziratik gertu daude, Natur Erreserba eta Hegaztientzako Babes Berezikoko Eremu izendatuta; beraz, kalte larriak izango ditu hegazti-fauna, eta, bereziki, **sai arreetan, sai zurietan, aztore-arranoetan eta beste hegazti eta saguzarren espezie askotan, haietako asko babestuak**.

Garrantzitsua da gehitzea Nafarroako Erriberan ere eguzki-energia biltzeko poligono handi bat instalatzea aurreikusten dela **Azkoienan eta Andosillan, 600 hektareatik gorako** lursail naturala okupatu nahi duena. Ahaztu gabe jadanik beste proiektu batzuek zientoka hektarea okupatuak dituztela. Beste eragin negatibo bat gehiago animalien ekosistemetan.

Baina, gainera, Nafarroako energia-sistemaren garapena, eta, hedaduraz Espainiako Estatukoak, ez dira egokiak, energia elektriko gehiago kontrolik gabe instalatzen ahalbidetzen dutelako. Gaur egun, Nafarroan kontsumitzen dugun elektrizitatearen % 46 berriztagarria da, eta aurreko urteetan ehuneko hori are handiagoa izan da. **Gaur egun Nafarroan energia berriztagarriek pisu handia dute, eta neurri handi batean, esportatu egin behar da**. Izan ere, 2019an Nafarroak ekoitzi zuen elektrizitatearen % 30 esportatu zuen, eta ehuneko hori gero eta handiagoa izanen da, instalatu nahi diren proiektu guztiak aurrera eramaten badira.

Muineko arazoa da Nafarroan kontsumitzen dugun energia guztiaren % 21 baino ez dela elektrizitatea. Egiten ditugun energia-kontsumo gehienak beste formatu batzuetan gertatzen dira, batez ere beroa energia mekaniko edo termiko bihurtzeko, erregai fosilak erretzearen bidez. Haren kontsumoa nagusi da garraioan eta industrian, eta ez dago inolako plangintza garrantzitsurik kontsumo hori elektriko izan dadin, orain arte bederen.

Beraz, **Nafarroan jatorri berriztagarriko elektrizitate kantitate gehiago ekoizteko instalazioak ezartzeak gutxi lagunduko du** aurre egin behar diegun arazoak konpontzen: klimaren alderazio larria eta energia fosila erauzteko gailurra. Energia berriztagarriko proiektu berrien uholde horren helburua ez da bi krisialdi horiek konpontzen laguntzea. **Enpresa eta pertsona batzuen poltsikoak are gehiago gizentzeko baino ez dute balioko**.

Horregatik guztiagatik, alegazio horien bidez, Nafarroako eta Estatuko gobernuei eskatzen diegu abian diren proiektu guztien **moratoria** orokor bat ezar dezatela, eta behar dugun energia-ereduari buruzko **hausnarketa eta plangintza demokratiko** egokiak egin ditzatela, honako hauetan oinarrituta: **kontsumoen murrizketa, energia aurrezte, ekoizpen deszentralizatua** eta azken kontsumo-lekuarekiko hurbiltasuna, non udalek eta kontzejuek, beren biztanleekin batera, eta, bereziki, landa-ingurunearekin batera, haien planifikazioaren eta garapenaren jakinaren gainean egon daitezen, **natura-ingurunea eta herri-ingurunea** gure lurraldean gertatzen ari diren diru-gose eta espekulazio erasoetatik **babesten**.

Nafarroan, 2021ko apirilaren 23a.

Sustrai Erakuntza Fundazioa

Web orrialdeak: www.sustraiarakuntza.org eta www.fundacionsustrai.org

Posta elektronikoa: sustrai@sustraiarakuntza.org

[Castellano]

La Fundación Sustrai Erakuntza presenta alegaciones ante la avalancha de polígonos solares y eólicos para solicitar su paralización y planificación democrática

La fundación Sustrai Erakuntza impulsa la presentación de alegaciones a la gran avalancha de proyectos de polígonos eólicos y solares que están saliendo a la luz en las últimas semanas en Navarra. Hasta la fecha, y en el plazo de poco más de un mes, la Fundación ha **presentado ya un total de 19 alegaciones** a otros tantos proyectos. Así mismo, las mismas o similares alegaciones están siendo registradas por otras entidades y personas particulares, dado que los textos y las instrucciones para hacerlo las hemos puesto a **disposición del público en general** en nuestra página web.

Durante las próximas semanas seguiremos presentando alegaciones a este aluvión de proyectos. De momento, la cantidad total de proyectos de polígonos eólicos y solares de tamaño e impacto relevante **se eleva ya a 36**. Esa es la cifra de proyectos que el Gobierno de Navarra y el del Estado han puesto a exposición pública en las últimas fechas en Navarra. El número total de los existentes será, por lo tanto, mucho mayor. Se puede conseguir toda la información sobre los proyectos, y acceso a las alegaciones en la **página web de Sustrai Erakuntza** (www.fundacionsustrai.org).

Sustrai Erakuntza se ha visto en la necesidad de poner esta serie de alegaciones debido a la **falta de racionalidad** con la que se están planteando esta cuestión. Como exponemos con mayor detalle en las propias alegaciones, el desarrollo de estos proyectos **carece completamente de ningún tipo de planificación democrática**. Con los proyectos en curso se está superando con creces lo propuesto en el vigente Plan Energético de Navarra. De este modo, no hay ningún ente público que esté organizando o dirigiendo la planificación de las renovables, ni poniendo freno a esta nueva burbuja especulativa. Y por supuesto, en ningún momento se ha consultado a la población sobre las necesidades, los impactos y el

modelo energético que queremos y necesitamos en Navarra. Todo esto se está realizando a espaldas de la ciudadanía, de una manera totalmente antidemocrática.

Por este motivo, **las alegaciones piden al gobierno que paralice todos los proyectos en curso**. Porque vemos necesario que se abra un proceso de reflexión y planificación adecuada del modelo energético que necesitamos en Navarra. Y mientras tanto, no se deben de poner en marcha más proyectos y polígonos como los que se están presentando, con sus grandes impactos ambientales, agrarios y sociales.

La gran mayoría de los proyectos y polígonos eólicos y solares presentados tienen **graves impactos en el medio ambiente** de Navarra. Precisan para su implantación de la apertura de grandes pistas por terrenos naturales, en muchos casos en zonas poco frecuentadas y de importantes valores naturales, cuando no se internan en zonas protegidas. De esta manera, se elimina la vegetación de muchas zonas naturales, se fragmentan los hábitats de las especies animales, se generan barreras artificiales que les dificulta el paso en sus zonas de campeo, etc.

Pero sobre todo, tenemos que **destacar la mortalidad de aves** que producen los polígonos eólicos de Navarra. De momento hemos realizado un **análisis preliminar de los datos de muertes de avifauna** en los parques eólicos existentes, contabilizados y entregados por el Gobierno de Navarra, pero lo ampliaremos e informaremos mas adelante. En esta primera aproximación hemos podido constatar que la masacre que se está produciendo de avifauna, también y especialmente de especies protegidas, es crítica.

Instalaciones recientes, como la de **Cavar**, en la Sierra del Yugo y colindante a espacios naturales como el Parque Natural de Bardenas, producen una alta mortandad de buitres, milanos y otras especies protegidas, incluso especies tan escasas como sisones o avutardas, como han denunciado reiteradamente organizaciones ecologistas, y demuestran los datos del Gobierno de Navarra. Los datos oficiales indican que, desde julio de 2020 cuando fue puesto en marcha el parque hasta marzo de 2021, en 8 meses escasos, **se han contabilizado 80 buitres leonados muertos, junto con otras especies de aves y murciélagos, sumando un total de 124 ejemplares**. Y eso son los detectados...

Ahora se han presentado otros proyectos, como el de **"Templarios"** que afecta a una zona que reúne valores naturales, de paisaje e incluso de patrimonio, o el de **"Los Corrales"**, en Ujué y Pitillas, en las cercanías de la Laguna de Pitillas, declarada Reserva Natural y Zona de Especial Protección para las Aves. Estos proyectos, y otros, tendrían efectos trágicos similares, si se llegan a realizar, provocando graves afecciones negativas sobre la avifauna, y en especial a **buitres, alimoches, águila perdicera, y muchas otras especies de aves, además de murciélagos, muchos de ellos protegidos**. Es importante añadir que, también en la Ribera de Navarra, está prevista la instalación de un gran polígono de captación de energía solar, en **Peralta y Andosilla**, que pretende ocupar una superficie de **más de 600 hectáreas** de terreno donde habitan aves amenazadas. Se suman otros cientos de hectáreas ocupados por otros proyectos. Otra afección negativa más a las zonas de campeo de los animales.

Pero además, nos encontramos con que las circunstancias que rodean al sistema energético de Navarra, y por extensión del Estado Español, promueven la instalación descontrolada de

más energía eléctrica. En la actualidad, el 46% de la electricidad que consumimos en Navarra es de origen renovable, y en años anteriores el porcentaje ha sido aun superior. De este modo, se puede decir que **Navarra ya tiene actualmente una alta penetración de electricidad renovable, de manera que tiene que exportarla** en gran medida. De hecho, en 2019 Navarra exportó un 30% de la electricidad que produjo, algo que va en aumento y que aun lo hará mas, si se llevan a cabo todos los proyectos que se quieren instalar.

El problema estriba en que la electricidad es tan solo el 21% de toda la energía que consumimos en Navarra. La gran mayoría de los consumos energéticos que realizamos se producen en otros formatos, sobre todo para la conversión de calor en energía mecánica o térmica, a través de la quema de combustibles fósiles. Su consumo es mayoritario en el transporte y en la industria, y ninguna planificación relevante pretende actuar en la transformación de este consumo en otro eléctrico, hasta la fecha.

De este modo, **la implantación de instalaciones para producir más cantidad de electricidad de origen renovable en Navarra va a contribuir poco** en la resolución de los problemas a los que nos enfrentamos: la grave alteración del clima y la llegada del cenit de extracción de energía fósil. Esta avalancha de nuevos proyectos de energía renovable no tiene como fin contribuir a solucionar esas dos crisis. **Solo sirven para engordar aun mas los bolsillos de unas cuantas empresas y personas.**

Por todo ello, a través de estas alegaciones solicitamos a los gobiernos de Navarra y del Estado que implanten una **moratoria** general de todos los proyectos en curso, y realicen un **proceso de reflexión y planificación democráticas** adecuadas del modelo energético que necesitamos, basado en la **reducción de consumos**, el **ahorro energético**, la **producción descentralizada** y de cercanía al lugar de consumo final, donde los ayuntamientos y concejos junto con sus habitantes, en especial del medio rural, sean parte activa de su planificación y desarrollo, **salvaguardando el medio natural y el comunal** de la avaricia económica y los ataques especulativos, que se están produciendo sobre nuestro territorio.

En Navarra, a 23 de abril de 2021.

Fundación Sustrai Erakuntza

Páginas Web: www.fundacionsustrai.org y www.sustraierakuntza.org

Correo electrónico: sustrai@sustraierakuntza.org

<https://eh.lahaine.org/la-fundacion-sustrai-erakuntza-presenta>